

# MERKATAL ESTABLEZIMENDU IRAUNKOR BATETIK KANPOKO SAMENTAREN EGIKARITZA RREGULATZEN DUEN ORDENANTZA

## 1. artikulua

Honako Ordenantza honen xedea salmenta ibiltaria da. Salmenta ibiltaritzat hartzen da merkatariek merkatal establezimendu iraunkor batetik kanpo, orubetan, espazio irekitan edo bide publikoan egiten dutena, leku eta egun aldakorretan, aipatu salmenta honako Ordenantza honetan ezartzen diren terminoen arabera egin beharko delarik.

Honako Ordenantza honek, bereziki, hilabete bakoitzaren bigarren larunbatean Zarautzen egiten den hilabeteroko ferian garatzen den salmenta ibiltaria erregulatzen du.

## 2. artikulua

Salmenta ibiltaria burutu ahal izateko, ondorengoak eskatzen dira:

- a) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egotea, komertzializatuko dituzten artikuluen salmenta ibiltariari dagokion epigrafean, eta bere ordainketa eguneratuta edukitzea.
- b) Gizarte Segurantzaren Erregimenean alta emanda egotea.
- c) Saltzeko dituen produktuei aplikatzekoak zaizkien erregelamentazio espezifikoetan ezartzen diren betebeharrak betetzea.
- d) Udalaren baimena edukitzea salmenta ibiltaria beharrezko lekuetan burutzeko.
- e) Udal izaerako zergak edota ezarrita dauden komertzioei aplikatzekoak zaizkien Ordenantzetan salmenta mota honetarako aurreikusten direnak ordaintzea.
- f) Atzerritarrek, honez gain, beren kontura lan egiteko beharrezkoak diren baimenak eta egoitza baimena dutela kreditatu beharko dute, bai eta

indarrean dagoen legerian ezartzen diren beste edozein betebeharrak betetzen dutela ere.

### **3. artikulua**

Salmenta ibiltariaren egikaritzarako baimena, Udalak aldeztu aurretik eskatzaileak merkataritza ibiltariaren egikaritzarako indarrean dauden legezko betebeharrak betetzen dituela egiaztatzen ondoren emango du, eta ondorengo ezaugarriak izango ditu:

- a) Pertsonala eta transferiezina izango da.
- b) Baimenak urtebetetik beherako lizentzia epea izango du. Berau iragan ondoren saltokiaren instalakuntzarekin jarraitu nahi duenak bidezko den eskaera aurkeztu beharko du Udalak ezarritako epeen barruan, aurretiazko instalakuntzak ez duelarik baimen berrietan lehentasunezko eskubiderik ekartzen.
- c) Lurralde eremuaren adierazpen zehatza barne hartuko du eta honen barruan berau egikari daitezkeen lekua edo lekuak, bai eta, salmentari nahiz karga eta deskarga lanei dagokienez, berau burutu ahal izango den data eta ordutegia ere.
- d) Baimenduriko produktuak zehaztuko dira.
- e) Dagozkion baimenen emakidan Zarautzen bizi diren merkatariek lehentasuna izango dute.

### **4. artikulua**

Hilabeteroko Ferian salmenta ibiltaria Udalerri honetan ohizkoak diren Merkatu-txikia kokatzen den egoitzetan burutu ahal izango da hilabete bakoitzaren bigarren larunbatetan edota aurreko larunbatean hurrengoa jaieguna baldin bada. Publikoarentzako salmenta ordutegia Gobernu Batzardeak ezartzen duena izango da.

Udalak, ekitaldi ekonomiko bakoitza hasi aurretik, hilabetoroko ferian salmenta ibiltarirako bidezko baimenak emateari ekingo dio gehienezko urte bereko epealdirako.

Horretarako, Gobernu Batzordeak azaroan zehar dagokion deialdia egingo du eskaerak aurkez daitezen, Feriaren egoitzaren kokalekua, azalera eta bertan instalatuko diren saltokien kopurua adieraziz, zozketaz egingo delarik deialdi bakoitzean ezartzen diren lehentasunen kaltetan izan gabe.

Ematen diren saltokiak erabat pertsonalak eta transferiezinak dira. Saltoki bat bakarrik adjudikatu ahal izango da pertsona fisiko, juridiko edota famili unitate bakoitzeko. Adjudikaturiko saltokiak beren titularrek pertsonalki ustiatu beharko dituzte, edota dagokionean beren famili unitateko kideek, edota titularraren menpeko beste edozein langilek, dagokion lan kontratuarekin.

## **5. artikulua**

Baimen berezia izango dute urtaroko salmenta deiturikoen, nekazal eta industri feriatan egiten diren salmentek eta Zarauzko bizilagunei mugaturiko artisautza produktuen salmentak. Udal lizentzia bere titularrak beti berarekin eraman eta erakutsi egin beharko du, salmenta ez delarik baimenduko aipatu titularra saltokian ez baldin badago.

## **6. artikulua**

Edozein motatako produkturen salmenta baimentzen da, beti ere berauei aplikatzekoak zaizkien erregelamentazio espezifikoak betetzen badituzte, eta edozein kasutan baztertuta geratzen delarik haragi freskoa eta animalia nahiz barazki izaerako produktu izoztuak. Udalak, hala eta guztiz ere, eskakizunak eta edozein kasutan interes orokorra kontutan hartuz artikulua jakin batzuen salmentari lehentasuna emateko ahalmena beregain gordetzen du.

## **7. artikulua**

Salmenta ibiltaria saltoki edo instalakuntza desmuntagarritan egingo da, hauek ezin izango direlarik inoiz ere merkatuen edo industri tokien sarreretan, edota berauen erakustokietan ipini ahal izan.

Alkatearen konpetentzia izango da edota, delegazioz, Gobernu Batzordearena, saltokien kokamendua eta mugaketa ezartzea, bai eta egokitzat hartzen diren debekuak ezartzea ere, aldez aurretik batzorde informatzaile eskumendunak proposatu ondoren.

## **8. artikulua**

1. Salmenta ibiltariaren egikaritzarako dagokion udal baimena lortzeko interesa duten pertsonak eskaria aurkeztu beharko dute Udal honetan, beronetan burutu nahi den egikaritza osatu eta karakterizatzen duten elementuak eta ezaugarriak zehaztuz.
2. Interesatuak baimena eskatzen duenean bi argazki ekarri beharko ditu. NANren fotokopia, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren dagokion epigrafean alta eman izanaren ordezkagiriaren fotokopia eta Gizarte Segurantzaren alta eman izanaren kreditagiria.

Interesatua Zarautzen bizi baldin bada, Egoitza Ziurtagiria aurkeztu ahal izango du, kontutan edukiko delarik saltokiak banatzeko unean. Dokumentu guzti hauek jatorrizkoekin erkatu beharko dira.

3. Eskaera, beharrezkoa den dokumentazioarekin batera, Udalean entregatu beharko da honek ezartzen duen epearen barruan, ez delarik epez kanpoko eskaerarik onartuko. Aurkezten den dokumentazioari dagokionez errakuntzarik ekar dezakeen edozein azpikeria edo manipulazio oso falta larritzat hartuko da eta, kasua balitz, emandako baimenaren ukapena ekarriko du.

## **9. artikulua**

Behin baimena eman ondoren, justifikatutako arrazoiren batengatik (heriotza, gaixotasun luzea, etab.) emakidadunaren ondoreko zuzenek edota hauek

ezean aurreko zuzenek eskatzen dutenean soilik baimenduko da titular aldaketa.

## **10. artikulua**

Baimenen jabetzari buruzko kontrolaren eta saltokien eta salgaien ezarpenaren ikuskapena, osasun gaietan izan ezik, Udaltzaingoaren konturakoa izango da, honek alkateari informatuko diolarik, zeinak, dagokionean, bidezko diren espedienteak tramitatuko dituen, dagozkion zigorrak proposatuz Gobernu Batzordeari.

Osasun ikuskapena albaitaritza zerbitzuak egingo du eta Osasun Departamentuari informazio emango dio, honek, dagokionean, bidezko diren espedienteak tramitatu eta dagozkion udal organoari beharrezko zigorrak proposatuko dizkiolarik.

Udaltzaingoak Udalaren ebazpenak bete araziko ditu, eta honez gain ordena publikoaren mantenimendua zainduko du.

Funtzionarioek eta gaina konpetentzia duten organismoek adskribituriko langileek egiten duten ikuskapen zereginari ezezkoa ematea edo zailtasunak jartzea falta larritzat hartuko da, 17. artikuluan aurreikusitako eraginak izango dituelarik.

## **11. artikulua**

Baimenen titularrek, merkatal egun bakoitza amaitzen denean, beren saltokiak eta hauen ingurua hondakin eta zaborrez garbi utzi beharko dituzte. Helburu hori betetzearren, Udal honek baliabideak nahiz informazio egokia eskainiko ditu.

Honez gain, saltzaileak kokatuta dauden espazio publiko eta ingurua ez kaltetzeaz arduratuko dira.

Espaloietan, paretetan, zuhaitzetan edo beste edozein motatako instalakuntzetan kalterik sortzen duen orok konponketaren zenbatekoa ordainduko du inolako aitzakia edo estakururik gabe, hala egiten ez badu salmenta debekatuko zaiolarik.

## **12. artikulua**

Arau-hauste desberdinengatik ezar daitezkeen zigorrak ondokoak dira:

- a) Zentzarazpenak falta arinentzat.
- b) 1.000tik 5.000 pezetara bitarteko isuna falta larrientzat.
- c) Arau-haustea sortarazi duten artikulua edo tresnen konfiskazioa.
- d) Salmentarako udal baimenaren erabateko edo aldi baterako errebokazioa oso falta larrientzat.
- e) Bidezko den jarduketa Eusko Jaurlaritzari jakinaraztea elikagaien manipulazio eta iruzur kasuetan.

## **13. artikulua**

Zigor handiagoa ezartzearen ohartarazpena duen zentzarazpena, eragin txikiko falta arinei aplikatzekoa izango da.

## **14. artikulua**

Faltaren larritasuna kontutan hartuz graduatuko da isuna. Eragindako kaltea, infrakziozilearen erru edo maltzurkeria, bai eta falta berean edo antzekoan berrerortze aniztasuna ere.

## **15. artikulua**

Saltzaileak baimena galdu egingo du hilabeteroko feriara 2 aldiz faltatzen baldin bada justifikaziorik gabe, adjudikaziodunaren oporraldiari dagokion hilabetea zenbaketatik kanpo geratzen delarik, zeinaren berri Udalari eman behar dion derrigorrez.

Salmenta ibiltarirako baimenaren errebokazioarekin zigortuko da, era berean, Udal Ordenantzetan aurreikusitako zergak edo prezio publikoak ez

ordaintzea, eta hasiera batean baimendutakoez bestelako produktuak udal baimenik gabe saltzea.

#### **16. artikulua**

Falta larritzat hartuko dira, arin edo oso larri izaera ez duten honako Ordenantza honi egindako arau-haustekak.

#### **17. artikulua**

Oso falta larritzat hartuko da, eta ondorioz baimena galduko du, saltokia esleituriko tokitik kanpo jartzea, baimenean emandakoak baino metro gehiago okupatzea; bai eta saltokia edo bere zati bat berrakuraz eman edo lagatzea ere, eta beronen titularrak ustiapena ez burutzea 4. artikuluan aurreikusitakoa izan ezik.

#### **18. artikulua**

Dagokion baimenik gabe salmenta ibiltaria egiten harrapatzen den pertsona orori Udaltzaingoak aipatu salmenta berehala uztera obligatuko dio. Saltzailea, behar bezala identifikatua izan ondoren, Udal honek ezgaitu egingo du bost urteko epean salmentarako baimenik jasotzeko. Ezgaitasun bera aplikatuko zaie beren saltokia edo bere zati bat berrakuratu edo lagatzen dutenei.

#### **19. artikulua**

Hiru falta larritan berrerortzeak oso falta larria eratuko du, salmentarako baimena erabat edota aldi baterako galduko duelarik.

#### **20. artikulua**

Artikulu edo tresnen konfiskazioa debekatutako salmenta hausteei aplikatuko zaie.

## **21. artikulua**

Harturiko artikulua edo tresnen destinoari dagokionez, ondorengo arauak hartuko dira kontutan:

- a) Elikadura egoera txarrean, edo adulteratuak dauden edota produktu edo sustantzia debekatuen osagarriak diren elikagaiak, konfiskatuak eta baliogabetuak izango dira.
- b) Debekatutako salmentagatik konfiskaturiko elikagai galkorrak, albaitari ikuskaritzak osasun egoera egokian daudela adierazten duenean, ongintzako zentroei entregatuko zaizkie beren kontsumorako, beronen dagokion erreziboaren bitartez.

## **22. artikulua**

Zigor administratiboa dagokionean erator daitekeen izaera penalezkoaz independentea da, inolaz ere gertakari berdinak ezingo duelarik zigor administratiboa eta penala ekarri aldi berean.

## **23. artikulua**

Ezin izango da zigorrik jarri, aldez aurretik dagokion prozeduraren instrukzioaren bidez interesatuari entzun gabe, zigor arinetan salbu.

## **24. artikulua**

Elikagaien osasunari dagokionez hausteetan aditu eta berauek zigortzeko prozedurak ondorengo eran sustatu ahal izango dira:

- a) Ofizioz, udal agintarien agindu bidez.
- b) Udaleko albaitari ikuskatzaileen jarduketaren bitartez.
- c) Denuntzia partikularraren bitartez.



## **25. artikulua**

Zigor espediente guztietan interesatuari entzun egingo zaio, honek alegazioak egin eta bidezkoak iruditzen zaizkion probak ekarri edo proposatu ahal izango dituelarik.

Udal administrazioak probak zabaldu ahal izango ditu bai eta, dagokionean, bidezkotzat jotzen dituen eta gertakariak argi ditzaketen diligentziak praktikatu ere, zigor daitezkeen erantzukizunak zehaztuz.

## **26. artikulua**

Lehendakariak edota Zerbitzuetako zinegotzi delegatuek, kasuak kasu, jasotako akten arabera burutuko den bidezko espedientea irekitzeari ekingo diote, haustea kalifikatuz eta largespena edota dagokion zigorra arrazoi bidez proposatuz.

## **27. artikulua**

Udaleko albatari ikuskatzaileak nahiz Udaltzaingoak jasotako aktaren ondoriozko haustearen jakinarazpenak kargu plegu izaera edukiko du.

Hamar eguneko epea emango da deskarguen plegua formulatu eta bidezko irizten diren probak ekarri ahal izateko.

## **28. artikulua**

Ezarrিতako zigorren aurkako birjapen errekurtsoen formulazio, tramite eta ebazpena indarrean dauden izaera orokorreko xedapenei egokituko zaizkie.

## **Azken xedapena**

Honako Ordenantza hau indarrean sartuko da behin bere testua osorik Probintziako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta Erregimen Lokalari

buruzko Oinarrien Lege Erregulatzailearen 70.2 artikuluaen tramiteak betetzen direnean.

Honako Ordenantza honetan aurreikusita ez dagoen guztian, Euskal Herriko Autonomi Elkartearen eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan indarrean dagoen eta aplikatzekoa den arautegian xedatutakoari jarraituko zaio.

### **Xedapen derogatzailea**

Ordenantza hau indarrean sartzen denean 1982ko hilabeteroko feriarri buruzko Erregelamendua automatikoki derogatuta geratuko da, bai eta honako Ordenantza honen xedapenen aurkakoak diren salmenta ibiltaria erregulatzen duten bestelako xedapen guztiak ere.

**EGINBIDEA.-** Jasoarazteko honako Ordenantza hau 1992ko martxoaren 27ko Udako Osoko Bilkuran hasiera batean onetsia izan zela.

Zarautzen, 1992ko martxoaren 31n  
Jarduneko idazkaria

**EGINBIDEA.-** Jasoarazteko honako Ordenantza hau 1992ko maiatzaren 28ko Udako Osoko Bilkuran behin-betiko onetsia izan zela, eta 1992ko ekainaren 22ko GAOean argitaratu zela.

Zarautzen, 1992ko ekainaren 23an  
Jarduneko idazkaria